# Irakas-praktikaren hobekuntza

## Autoebaluazio-esperientzia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ISBN 978-84-457-3291-5

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

# Irakas-praktikaren hobekuntza

## Autoebaluazio-esperientzia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

**Gure esker beroenak eman nahi dizkiegu ere Maribi Apraiz Jaio eta Teresa Ruiz Pérez, Berritzegune Nagusiko aholkulariei, guri emandako laguntzagatik.**

Argitaraldia: 1.a, 2013ko otsaila

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz

Egileak: Josu Agirre Vicuña, Josu Etxaburu Osa, Marcelino Hernández Garduño, Xabier Iturbe Gabikagojeaskoa, Jon López Armendáriz, Lourdes Ormaza Larrocea, Kepa Portillo Sanz, Ismael Redondo Rojo, Jokin Rodríguez de la Fuente eta Lurdes Uriarte Uriarte

Diseinua
eta maketazioa: ekipoPO

Imprimategia: RGM, S. A.
Igeltzera Poligonoa, A1bis Pab. • 48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN: 978-84-457-3291-5

Legezko gordailua: VI 28-2013

# Aurkibidea


**Hitzaurrea: irakaslana hobetzea** ........ **7**

**Sarrera** ........ **11**

**Nortzuk gara eta zer egin dugu?** ........ **15**

**Prozesuaren faseak** ........ **19**

1. Jarduera esparruak definitzea ........ 21
2. Dimentsio orokorrak aukeratzea ........ 22
3. Adierazleak zehaztea ........ 24
4. Galdera-itemak gauzatzea ........ 26
5. Galdesorta ezartzea ........ 32
6. Erantzunak kudeatzea eta interpretatzea ........ 34
7. Hobekuntza esparruak proposatzea ........ 36
8. Autoebaluaziorako Galde-sorta
   eta ebaluazio diagnostikoa bat egitea ........ 36
9. Etorkizunerako erronkak zehaztea: aurrera begira, zer? ........ 37

**Parte hartu duten irakasleen iritziak** ........ **39**

Zelan bizi da esperientzia ikastetxean? ........ 41

Prozesuan antzemandako indarrak ........ 42

Prozesuan antzemandako ahuleziak ........ 42

Ondorioak eta hurrengo erronkak ........ 43

Beste batzuk ........ 43

**Parte-hartu duten ikastetxeak** ........ **45**

**Ikastetxeetan garatzen dituzten proiektu batzuk** ........ **51**

**Eranskinak** ........ **55**

I. eranskina: lehenengo momentuan gogoeta bultzatzeko erabilitako irakurgaiak ........ 57

II. eranskina: adostutako *dimentsio / jardun esparru*en inguruko ikastetxeetako irakasleek eginiko gogoetak ..... 60

III. eranskina: *dimentsio / jardun* esparru bakoitzeko adierazle eta iradokizun gehiago ..... 65

IV. eranskina: adierazleen ezaugarriak lantzeko erabilitako lehenengo adibideak ..... 68

V. eranskina: ikastetxe bakoitzak galdera komunak eta berarentzako propioak zirenak aukeratu behar zituen ..... 69

VI. eranskina: *dimentsio / jarduera* esparruetan ikastetxeek emandako item batzuk lehenengo jorraketa egin ondoren ..... 73

VII. eranskina: ikastetxeetan detektatutako *indarguneak* eta *hobetu beharreko* desberdin batzuk ..... 75

**Txantiloiak ..... 77**

**Bibliografia ..... 83**

# Hitzaurrea

## Irakaslana hobetzea



Begien bistakoa da faktore askoren mende dagoela irakaslana, baita irakaslana hobetzeko egitekoa ere. Faktore guztiak dira garrantzitsu: edukien hautaketa, haien tratamendu integratua, espazio- eta denbora-antolamendua, material eta baliabide didaktikoak, lanen eta ikasleen interesen arteko loturak edo hurbiltasuna, lanen funtzio soziala, ikasleen aniztasuna, ikasteko erritmoak eta moduak, alderdi horiei guztiei erantzuteko antolamendua, talde-lana, itxaropenak, ikasteko gogoa sustatzea…

Bibliografia zabala dago. Hark ikuspegi askotatik aztertzen eta deskribatzen du nola esku hartu behar den elementu horietan, eta nolako harremanak eta hierarkiak diren berorien artean.

Nire iritziz, curriculuma osatzen duten elementu guztietatik, ebaluazioak du praktika eraldatzeko indarrik handiena. Iruditzen zait, halaber, ebaluatu egin behar dela, hobetzeko, eta, irakasleen garapen profesionala garatzeko, behar-beharrezko estrategia dela irakas-jarduera bera ere ebaluatzea, hau da, bereziki irakas-jardueraren autoebaluazioa egin behar dela.

Horrexetaz ari da, hain zuzen ere, esku artean duzuen liburua. Lan honetan, zuzenean deskribatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe batzuen esperientzia. Hezkuntza Sailaren proposamen bat onartu zuten ikastetxeok, hots, tresna bat moldatu zuten guztien artean, beren jarduerak ebaluatzeko, praktika horiei buruzko informazio zehatza eskuratzeko, eta, aipatutako informazioan oinarrituta, hobetzeko neurriak proposatzeko. Ikastetxe horiek lehenago ere aritu izan dira sarean, beste proiektu batzuetan, eta barneko antolamendu-egitura aski garatuak dituzte.

Orain aurkeztera goazena ez da autoebaluazio-eredu itxi bat, ezta autoebaluazio-eredu guztiz osatu bat ere. Aitzitik, prozesu bat da. Zehazkiago esanda, prozesu baten zati bat da, zeren hemen esperientzia gisa aurkezten dena eta talde moduan landu dena, oraindik, ikastetxe bakoitza ari baita garatzen: bakoitza bere moduan, testuinguru bakoitzera eta ikastetxe bakoitzak daukan egoerara egokituta, ikastetxeko ohiko planifikazio-dinamiken eta urteko ebaluazioen barruan. Gainera, lan hori bera ikastetxe-talde horrek egin du, eta zati espezifiko gisa sartu da, bi urte irauten duen fase baten moduan, programa zabalago batean. Programa ikastetxeak trebatzeko da, eta kalitatea kudeatzeko sistemak garatzera dago zuzenduta. Hala, oraintxe bertan badira beste ikastetxe eta institutu batzuk lan bera egiten beren prestakuntza-ibilbidearen barnean.

Gauzak eginez ikasten direla sinestea -nahiz eta ikasketa horiek arrunt gisa sailkatu- erreferente bat da, funtsezko irizpide bat, eta oso kontuan eduki behar da ikasketa-egoerak diseinatzeko orduan. Eta horixe da irakasleen zeregin nagusia: ikasketa-egoerak diseinatzea, ikasleek gaitasunak bereganatu eta gara ditzaten. Horrenbestez, guztiz beharrezkoa da aztertzea, batetik, zer egiten dugun, eta, bestetik, zer eginarazten diegun ikasleei. Gure ikasleentzat ikasteko bide nagusietako bat da era askotako zereginak egitea, haiek egiten ikustea, haiek beste batzuekin edo beste batzuentzat egitea; baita irakasleentzat ere.

Denbora eta espazio batzuk aurkitu behar ditugu, banaka eta taldeka egiten ditugun jarduerez era kritikoan hausnartzeko. Honako hauek aztertu behar ditugu zehazki: nola sailkatzen ditugun geure ekintzak, nolako harremanak ezartzen ditugun geure ekintzen eta ikasleei eskatzen dizkiegunen artean, nolako koherentzia daukan horrek guztiak… beti helburu bera dugula: ikasleek ikastea.

Horixe guztia jorratzen dute orrialdeok. Nire iritziz, errealismoaren balio handia dute. Kontatzen dena benetako ikastetxeetan gertatzen da. Irakasleak benetakoak dira. Zuzendaritzak benetakoak dira. Testuinguruak benetakoak dira.

Horregatik guztiagatik, iruditzen zait esperientzia baliozkoa dela; lagungarria, beste batzuentzat ere. Emaitzagatik baino gehiago, betetako prozesuagatik. Izan ere, ikasgeletan gertatzen denaren azterketa oinarritzat hartuta eta lidergo eraginkor bati esker, abian jarri dira ezagutza praktikoa sortzeko taldekako prozesuak, eta, aldi berean, taldean eragiten dute, ikasi eta irakasteko prozesuak hobetzeko. Hori ere eginez ikastea da, eta hain zuzen ere ikasteko modu hausnartu, kolektibo eta kritiko hori funtsezko osagai bat da garapen profesionalerako.

Orrialde hauetan azaltzen den guztia ez da irakasle-talde baten kezken ondorioa baino; izan ere, irakaslana hobetu nahi izan dute, zuk bezala. Ziur nago baliagarria izan zaiela haiei guztiei, eta ziur sano poztuko direla zuretzat ere baliagarri izanez gero.

Marcelino Hernández Garduño
**Ikastetxeen zuzendaria**

# Sarrera



Durangon gaude, urtarrilean. Ostarteak iragarri dituzte gaur goizerako. Hamabi ikastetxe-zuzendari bildu gara, eta, gurekin batera, berritzeguneko aholkulari bat. Gehienok aspalditik ezagutzen dugu elkar, hainbat jardueratan batera ibili gara eta. Baina badirudi gaurko bilera ezberdina izango dela: ezohiko ikuspegia ematen dio eskuartean daukagun erronkak.

Batzen gaituena ez da beste proiektu bat bakarrik, gaur Hezkuntza Sailak egiten digun proposamena ez da ikastetxeei egiten zaizkien horietakoa: batez ere, gai berria da, gure lanaren muinari, gure zereginari, bete-betean eragiten diona. Gure asmoa da irakasleon eguneroko irakaspraktika ebaluatzeko tresna bat sortzea, eta, gero, irakasle guztiekin praktikan ipintzea.

Orain arte, ikasleei begira egin dugu ebaluazioa: zenbat aurreratu duten, zer – nolako emaitzak atera dituzten... Baina oso gutxitan garatu dugu ikastetxeko egituraren bat ebaluatzeko ekimenik (irakasleen arteko koordinazioa, familiekiko harremanak ...). Oraingo honetan, aztertu nahi dugu nola egiten dugun lan ikasgelan; ebaluatu egin nahi dugu nola jokatzen dugun ikasgelan, bertan dugulako ardura osoa, bertan azaltzen direlako mozorrorik gabe eta ageri-agerian ikaste-irakaste prozesuak.

Gure lanean, irakasleoi zaila egiten zaigu erabiltzen ditugun metodoak eta sortzen ditugun materialak konpartitzea; baita eguneroko borroketan izaten ditugun sentimenduak (poza, amorrua...) ere. Gelako atea itxi, eta barruan gertatzen dena geure baitarako geratzen da: ez diegu larregi kontatzen lankideei. Hori dela eta, badakigu muga ugari gainditu beharko ditugula, geureak lehenik eta taldekideenak gero; baina merezi duela uste dugu. Zalantza asko ditugu oraindik, baina seguru gaude proiektu honek irakasle hobeak izaten lagunduko digula, eta, hala, hobeto ikasten lagunduko diegula geure ikasleei.

Proiektu hau gure taldean bakarrik eraman genezakeen aurrera, baina ez da gure estiloa: saltsa handiagoan sartuko bagara ere, hemen biltzen ditugun gogoetak klaustroetara helarazi, eta haietatik egingo diren ekarpenekin aberastu nahi ditugu. Talde sortzailetik haratago joan behar du lanak.

## Lehenengo urratsak

Gure abiapuntua biziki harritu gintuzten testu batzuen irakurketa izan da, pedagogian adituek idatziak[1]. Oso lagungarriak izan dira irakaspraktika ebaluatzeko sortu nahi genuen tresnaren ezaugarriak definitzeko eta aldi berean ziurtatzeko gure ikerketak benetako aldaketak eta hobekuntzak ekarriko zituela ikastetxean.

Hauek izan ziren, besteak beste, lan honi ekiteko kontuan hartu genituen hasierako alderdiak:

- Analisiak esanguratsua izan behar zuen. "Zaurian bertan ukitu behar du" esan zuen gutariko batek.
- Irakasle bakoitzaren gogoeta piztu behar zuen.
- Irakasle guztiok analisia onartu eta inplikatu beharra dugu, zintzo eta objektibotasunez. Lan zaila. Izan ere, "inork ez du gogo onez onartzen «badela arazoaren parte»"

[1]Ikus I. eranskina.

- Autoebaluazioa ikastetxeko egituretan eta ohiko funtzionamenduan txertatu behar zen.
- Sinestuta egon behar genuen denok gelako jardunbidea hobetu genezakeela, eta horrenbestez, autoebaluazioa tresna egokia dela norberaren indarguneak eta ahulguneak antzemateko.
- Irakasleon artean normalean komentatzen ez ditugun eta inplizituta dauden praktikak azaleratu behar zituen.
- Denon arteko eztabaida bultzatu, irakasle bakoitzaren erantzuna guztien gogoetarekin uztartzeko balio behar zuen (zikloak, etapak, mintegiak …).
- Autoebaluazioa ez zen izan behar ikasgelan egiten dugunaren balorazio hutsa. Aitzitik, gela barruko praktika hobetzeko eztabaida, behar-beharrezkoa berau, bultzatu behar zuen.
- Erantzun "sasi egokiak" saihestu behar zituen, horrelako erantzunek, askotan, gogoeta eragozten dute eta.
- Askotariko erantzunak onartzeko baliagarria izan behar zuen: erantzun irekiak, itxiak edo mistoak... horrela emaitzen kudeaketa zailagoa izango bazen ere.

Beraz, irakaspraktikaren autoebaluazioak ez zuen izan behar ariketa akademiko huts bat, baizik eta praktika hobetzeko balio behar duen prozesua, hezkuntzaren kalitatea handitzeko eta irakasleen prestakuntza hobetzeko.

Hurrengo orrialdeetan, lan taldean bizi izandako esperientzia kontatu nahi dizuegu. Testua erakargarriagoa izan dadin, nahita tartekatu ditugu prozesuaren faseen deskripzioa, gogoeta teorikoak eta parte-hartzaileen benetako komentarioak. Izan ere, prozesuaren garrantzia eta baliagarritasuna azpimarratu nahi dugu.

"Gure eskolatik bi lagun joaten ginen, eta ez zitzaigun erraz egiten bileretan landutakoa eskolara eramatea, baina hasi ginen ikusten zein eragin handia izan zezakeen eskolan esperimentu honek."

# Nortzuk gara eta zer egin dugu?



Esperientzia honetan, hamabi ikastetxe hauek izan gara: Lizardi BHI, Mogel-Isasi BHI, Zuazola-Larraña BHI, Beasain BHI, Elorrio BHI, Orobiogoitia BHI, Lekeitio BHI, Arrigorriaga BHI, Gorliz HLHI (lehenengo urtean baino ez), Txomin Aresti HLHI, Zaldupe HLHI eta Lekeitio HLHI.

Tipologia eta tamaina ezberdineko ikastetxe publikoak gara : Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, DBH institutu independenteak[2], eta DBH eta Batxilergoko institutuak.

Desberdintasunak alde batera utzita, honakoak konpartitzen ditugu:

- Proiektu global ezberdinetan ibilitako ikastetxeak gara, besteak beste, Amara Berri, Ikas Komunitateak, Kalitatea Hezkuntzan... proiektuetan.
- Zuzendaritza taldearen konpromiso nabaria dugu ekimen hau aurrera ateratzeko. Ia kasu gehienetan zuzendaritza talde egonkorrak dira. Edozein proiektu aurrera eramateko lehen inplikatua zuzendaritza taldeak izan behar du.
- Aurreko bi ezaugarrien ondorioz, ikastetxe hauetan barne egiturak eta koordinazio prozedurak oso finkoak dira. Ikastetxeek, ibilbide desberdinak izan arren, barne koordinazio egiturak lehendik ezarrita dituzte eta oso funtzionamendu egokia dute. Lehenengo momentutik oso argi egon da helburua: "(...) proiektu hau aurrera eramateko ez dugu beste antolamolderik sortu behar. Gure irakaspraktikari buruzko gogoetak eguneroko dinamikan txertaturik egon behar du".
- Ikastetxeek ohitura dute lankidetzan eta elkarrekin, sarean, lan egiten. Hau dela eta, erraza izan zaigu bidea eta egiteko modua planifikatzea eskema sinple bat erabiliz:

  1. Sarean bertan koordinatzea
  2. Lana ikastetxean.
  3. Ikastetxetik gure sarera.

"Sarean lan egiteak dakarren onuretako bat da hain zuzen egiten ari zaren lana sare kideekin kontrasta dezakezula eta une batean nola jarraitu ez badakizu, albokoak, berak nola bideratu duen arazoa azal diezazuke, eta horrela bide egiten jarraitzerik izango da.".

Hala, gure sareko lana honelako prozedurari lotu zaio:

1. Sarean bertan koordinatzea.

Sarean 13-14 pertsona biltzen izan gara. Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza taldeko edo ikastetxeak izendatutako beste kideren bat eta Berritzeguneko aholkulariak.

Foro honetan egin beharreko lana hiru ardatzen inguruan bideratu dugu:

-Ebaluazio tresna edo galdetegia sortzeko prozesuaren faseei buruzko gogoeta.

-Ikastetxean egin beharreko lana zehaztea eta planifikatzea.

-Lan hori ikastetxearen ezaugarriei eta egiturari egokitzea eta hala, argudioak, gidoiak, lan-metodoak eta abarrekoak diseinatzea.

2. Lana ikastetxean

Ikastetxeetan garatu izan dira koordinazio batzar orokorrean adostutako pausoak, bakoitzaren egituretara eta antolamoldeetara egokituz.

[2]Bakarrik DBH etapa dutenak.

Nahiz eta sareko bileratik lana ondo mamituta eroan ikastetxera, arazoak sortzen dira, batzuetan, lanari ekitean. Prozedurak eta eman beharreko urratsak sareko gunean argi gelditu arren, batzuetan zailtasunak eta ez-ulertzeak izaten dira. Horregatik, azalpen eta eztabaida ugari izan ditugu denok argi izan arte zeintzuk diren eman beharreko pausoak eta proposatuko den lanaren zertarakoa.

"Langintza honetan prestakuntza taldeak izan dira protagonistak eta lan hau aurrera ateratzeko lan-egitura egokia delakoan gaude, prestakuntza taldea baita prestakuntza egin beharra duten irakasleek osatzen dutena. Eztabaida mamitsu hauetatik at hainbat irakasle geldi daitezke ikastetxeko prestakuntza plangintzan parte hartzeko derrigortasunik ez dutelako legeak hala aginduta.

Hori dela eta, egin beharreko lana departamentuetan, mintegietan, alorretan, zikloetan … lantzeko denbora eta epeak aurreikusi behar dira. Guk horrela aurreikusita izan dugu azken 2-3 ikasturteetan eta departamentu guztiek, zuzendaritzak adierazita, euren urteko planean ordu kopuru bat aurreikusi beharra izan dute prestakuntza planetik datozen lanak burutzeko".

Edozein lanaren hastapenetan gertatu ohi den bezala, guk ere denetariko momentuak bizi izan ditugu, batez ere ideiak konpartitzerakoan; izan ere, jokoan jarri behar izaten dira gordeta ditugun pentsamoldeak, egiteko modua... Ez da erraza suertatzen lan egiteko ohiturak beste lankideen aurrean agertzea. Ez daukagu kultura hori, momentuz.

Horregatik planteatzen zen lana, irakaslearen eguneroko praktikaren autoebaluaziorako tresna sortzea alegia, inportantea bazen ere, askoz inportanteagoa zen eguneroko irakas-praktikari buruzko hausnarketa kolektiboa egitea, eta beraren bitartez, etorkizunera begira zein izan litezkeen hobekuntza espa-rruak identifikatzea eta garatzea.

## 3. Ikastetxetik gure sarera

Koordinatzaileen bilerara edo sareko bilerara bueltatu ohi da Ikastetxeetan egindako lana: zailtasunak, irakasleen harrera eta arreta, emaitzak ...

Momentu hau oso aberatsa izan da, batez ere besteen lana ikusi ondoren adibideak, ereduak, baliabideak, ideia berriak, zailtasunen kudeaketa eta zenbait arazori irtenbidea emateko eta informazioa eta ideiak hartzeko aukera eman duelako.

Sareko batzar hauetariko batzuetan, elkarren informazioa jasotzeaz gain, adibide praktikoak landu izan ditugu, batez ere ikastetxeetan eman nahi genituen pausoak aurreikusteko eta ibilbide jakin bat antolatzeko.

Oso kontuan hartu behar da, hausnarketa prozesuak arrakasta izan dezan, zuzendaritza taldeak parte hartu behar duela honako esparruetan:

-Antolaketan: lana aurrera eramateko beharrezkoak diren lan-egiturak sortuz.

-Hausnarketa faseak aurreikustean: kronograma burutu, jarduerak gauzatu, arduradunak izendatu, denborak markatu eta ebaluazio-irizpideak zehaztu.

-Prestakuntzan: beharrak aztertu eta formazio plangintza diseinatu.

# Prozesuaren faseak



Prozesu gehienetan bezala, honetan ere ibilbide bat egin genuen partaideen erritmoak eta talde osoaren dinamika uztartzen ahaleginduz. Honakoa izan zen gure.

## 1. Jarduera esparruak definitzea

"Hasiera batetan ez genekien zein zen gure eginkizuna!"

Esaldi honek nahiko ondo adierazten du taldearen egoera. Bi mila eta bederatziko irailean geunden eta aurreko urteko Ikastetxeen Autonomia Proiektuari beste norabide bat eman nahi zion sartu berria zen Hezkuntza Sailak. Baina, zein?

Hauxe zioen hasierako asmoak:

"Gelako jarduerak izan behar genituen helburutzat eta handik ikastetxeetako irakas praktikak hausnartzeko erreminta bat garatu, eta bide batez erreminta sortzen ari ginen bitartean ikastetxeon hausnarketa eta hobekuntza prozesuak bultzatu."

Eta zelako erreminta? Galdetegi bat? Zelakoa, baina? Geuk geure burua ebaluatzekoa? Irakasleen irakas-praktikaren autoebaluaziorako baliagarria? Ez ote zegoen merkatuan aurrez egindakorik? Zergatik ez erabili estandar bat?

Eta lehenbiziko zalantza horiekin eta gure taldeko institutu batean egindako saiakuntza abiapuntu, estreinako pausoak ematen hasi ginen.

Hasi… bai, baina kide batek behin eta berriz gogorarazten zigun modura:

"Ikastetxe batetan ia ekimen guztiek dute irakas-praktikarekin edota ikasleen emaitzekin lotura. Nola zehaztu, beraz, irakas-praktikataz ulertzen genuena? Zeintzuk ziren hausnartzeko zeuden jardun-esparruak? Nola aukeratu esanguratsuenak?"

Ideiak behar genituen. Azkar eta asko, gainera. Horretarako hausnarketa prozesua zabaldu genuen: irakas-praktikaren inguruan, zertaz egin gogoeta? Non jarri lehentasunak?

Eta ikastetxe bakoitzak pentsatzen zuena mahaigaineratuta, honelako egoera anitzarekin aurkitu ginen:

| Zein jarduera-esparru hartzen ditu irakas-praktikak? | |
|---|---|
| • Proposatzen ditugun ariketa motak<br>• Teknologia berriak: zeintzuk, noiz eta zertarako<br>• Irakasleok gaurkotzeko prestakuntza. Erronka berriak.<br>• Eskolak eta Etengabeko Hobekuntza<br>• Programazioa: malgutasuna<br>• Lan egiteko era: ikasleen parte-hartzea<br>• Ebaluazioa<br>• Aniztasuna<br>• Metodologiaren emaitzen azterketa<br>• Motibazioa lortzea<br>• Aniztasunaren trataera<br>• Autonomia garatzea<br>• Esku-hartze adostua garatzea<br>• ... | • Proposatzen ditugun ariketa motak<br>• Teknologia berriak: zeintzuk, noiz eta zertarako<br>• Irakasleok gaurkotzeko prestakuntza. Erronka berriak.<br>• Eskolak eta Etengabeko Hobekuntza<br>• Programazioa: malgutasuna<br>• Lan egiteko era: ikasleen parte-hartzea<br>• Ebaluazioa<br>• Aniztasuna<br>• Metodologiaren emaitzen azterketa<br>• Motibazioa lortzea<br>• Aniztasunaren trataera<br>• Autonomia garatzea<br>• Esku-hartze adostua garatzea<br>• ... |

Ikusten den modura, itzelezko nahaspila. Ordena behar genuen; gutxieneko ordena bat: jarduera-esparru gehienak barruan hartuko zituzten eremu nagusi batzuk; dimentsio orokorrak, alegia.

## 2. Dimentsio orokorrak aukeratzea

Gustura gelditu ginen irakas-praktikaz hausnartzeko jarritako jarduera esparruei eutsi, eta modu koherentean lotzeko aurrenekoz proposatu genituen sei atalekin; iritzi berekoak ginen guztiok[3] :

- Ikasleen motibazioa
- Aniztasunaren trataera
- Ikasleen protagonismoa
- Gelako jarduerak
- Ebaluazioa
- Programazioa

[3]Ikus I-a eta b txantiloiak.

> "Aipatu ditugun aspektu guztiak ezin dira laburtu eta gutxiago denak batera hausnartu, baina nik uste dut, nahiko ondo aukeratu ditugula eremu nagusiak eta esandako jarduera gehienak barne hartzen dituztela."

Hauek ziren, gure ustez, irakas-praktikaren jarduera-esparru anitzak lotzen zituzten dimentsio nagusiak. Esparru hauek aztertuz, irakasleon eginkizunaren inguruan gogoeta egiteko aukera zabala eta osoa aurreikusten genuen. [4]

Laster gerora, dimentsio hauek birpentsatu eta beraien arteko loturak uztartuta, laura ekartzea adostu genuen, irakasleen praktika islatzeko adierazlerik esanguratsuenak zirela iritzita:

- Programazioa
- Aniztasuna
- Gelako jarduerak
- Ebaluazioa

Baina nola aztertu atal nagusi edo dimentsio hauek? Zeri erreparatu? Non jarri gure begirada analisia zorrotza eta esanguratsua izan zedin?



[4]Ikus II. eranskina.

# 3. Adierazleak zehaztea

"Bitartean, ikastetxeetan eginbeharreko gogoeta antolatzen hasi eta gurean, zuzendaritza taldekoek eta kalitate arduraduna den andereñoa biltzen hasi ginen. Galdera hauek bururatu zitzaizkigun:

- Badu honek gure eskolako hezkuntza proiektuarekin zer ikusirik?
- Gure lerro estrategikoetan honetaz zerbait adierazten da?
- Eta hau nola lotu esku artean ditugun lanekin?"

Berriro gertatu zitzaigun: arazo bat konpontzen zenerako beste korapilo batean enpatxaturik! Nola atera mamia dimentsio nagusi bakoitzari ?

Oraingoan ere guztion lan partekatuaren beharra zegoen. Hala, proiektuaren koordinatzaileak dimentsio bakoitzeko zortzi-hamar bat adierazle aukeratu behar izan zituen, bere ikastetxeari eta bertako antolaketari lotuak (zikloan, batzorde pedagogikoan, departamentu edo mintegietan, zuzendaritza batzordean …).

Normala den modura, ikastetxe bakoitza bere behar eta premietara egokitu zen eta horien harira asmatu zituen adierazleak. Eta hala sortu ziren, berriro ere, ehundaka adierazle.

Hona hemen, adibide xume gisa, dimentsio bakoitzeko zenbait adierazle eta iradokizun[5]:

•Aniztasuna

- Programazioa egokituta dut ikasleen ezaugarrien eta beharrizan berezien arabera.
- Berdinen arteko laguntzak antolatzen ditut taldean, ikasleen profil desberdinen arabera. Talde elkarreragileak indartu eta elkarrekintza (interaktibitatea) sustatuz.
- Zer ulertzen dugu aniztasunaz hitz egiten dugunean? Ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatuz bultzatzen joan behar dugula. Denek denetatik eta egoera ezberdinetan ikas dezaketela, eredua edonor izan daitekeela eta ez bakarrik irakaslea. Bakoitzaren motibazioa izan behar dela abiapuntua.

• Programazioa

- Nori zuzendua. Lortu beharrekoa ondo zehaztu aurretik. Erabili beharreko baliabideak ongi aztertu eta egokitasuna kontuan hartuz erabaki. Zer izango den lan horretan funtsezkoa definitu gero ebaluatu ahal izateko. Adostu nire paraleloekin eta aurreko eta hurrengo kurtsoetan daudenekin. Gutxiengoetatik aparte zer landuko da programazio horrekin. Baloratu ongi arlo horrekin batera zein beste aspektuak ere kontuan hartu behar ditudan
- Mintegikideen artean adostutakoa kontuan hartuta, zehazten ari naiz programazioan edukien banaketa eta sekuentziazioa (Hobekuntza plana 1).
- Mintegien artean adostutako akordioak eramaten ari naiz praktikara oinarrizko konpetentziak ebaluatzen hasteko (Hobekuntza plana 2).

[5]Gehiago III. eranskinean.

- Gelako jarduerak
    - Anitzak, zabalak, ibilbide luzekoak, beraiei pentsarazi egiten dietenak, askotariko baliabideak bilatzeko aukera ematen dietenak, jarduerak lana sistematizatzeko aukera ematen dutenak.
    - Jardueraren zertarakoa aurretik bilatu, helburua ondo zehaztua, beraien parte hartzea bultzatu , ebaluaketan parte hartzeko aukera eman, kritika eraikitzailea bultzatu.
    - Gelan emandako denboraren antolaketa:zenbat irakaslek, zenbat ikaslek…

- Ebaluazioa
    - Ebaluaziorako proba mota desberdinak erabiltzen ditut (azterketak, lan indibidualak, talde lanak, ahozko azalpenak...).
    - Ebaluaziorako askotariko behaketa erregistroak erabiltzen ditut (irakaslearen koadernoko oharrak: ongi edo gaizki egindako zereginak, ekarpenak, oinarrizko konpetentzia etab.).
    - Tutore modura, familiekin egindako informazio bileren erregistroa betetzen dut, batik bat ebaluazio bakoitzaren ondoko bilerena.
    - Ikasleek ikasten dutenaren kontzientziaz ohartzeko.

Hauxe zen nabarmenena: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, ezaugarri diferenteak izan arren, hainbat alderditan bat etorri ginen eta hausnarketarako interes komunak agertu genituen.



Adierazle guztiak mahai gainean jarrita, prest geunden hurrengo pausoa emateko, gure ustez azkena: adierazle horiek item-galdera bihurtuta, galde-sorta bere osotasunean txukun-txukun biribilduko zuena. INOZOAK!

"Ordurako, zalantza aldera eginda genbiltzan ....

-zertarako egiten ari gara egiten ari garena?

-nola antolatuko dugu hau guztia ikastetxean?

-nola kudeatuko ditugu emaitzak?

-zer bihurtuko da azkenean galdetegi hau?"

## 4. Galdera-itemak gauzatzea

"Baina zer da galdera-itema? Zelan idatzi edo formulatu behar da galdera-item famatua? "

Lana banatu behar dugu! Adierazle guztiak kontuan izanik, ikastetxe bakoitzak aukera ditzala dimentsio bakoitzeko bi motako bost galdera-item: komunak (berdinak ikastetxe guztientzat) eta partikularrak (ikastetxe bakoitzak bere egoera konkretua aintzat hartuz, aurrekoei gehituko dizkienak).

Galdera-itema zer zen eta zer ez zen argitzeko[6] nahikotxo buelta eman ostean, honako akordioetara heldu ginen:

- Esaldiak adierazitakoa betetzen zen ala ez jakiteko balio behar zuen.
- Erraz ulertu behar zen, argibiderik eman gabe ulertzeko erraza izan behar zuen.
- Galdera gisa idatzita egon behar zuen.
- Erantzuteko lau aukera edukiko zituen.
- Galdera pertsonalizatua behar zuen, pertsona bakoitzari eta bere zereginari zuzendua.
- Balorazio kualitatiboa edota iradokizunak adierazteko aukera ere eskainiko zuen.



[6]kus IV. eranskina.

**Fitxa hau erabili genuen itemen erredakzioa praktikatzeko**

| | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|
| **1.** Helburu didaktikoak lortzeko jarduerak diseinatzen ditut. | | | | |
| **2.** Ikasleak motibatzen ditut lortu nahi ditudan helburuak eta jardueren helburuak zein diren adieraziz, beraien aurre ezagutzetatik abiatuta, edukiak egoera errealekin lotuz, egitekoen erabilgarritasunari buruz hitz eginez eta egitekoaren inguruko espektatibak bultzatuz. | | | | |
| **3.** Ikasleengan jarrera baikorrak sustatzeko etab eren interesak kontuan hartzen laguntzen duten metodologiak erabiltzen ditut. | | | | |
| **4.** Ikasketa autonomoa laguntzeko jarduerak proposatzen ditut (informazio osagarria bilatzea, lanak, ikerketak…). | | | | |
| **5.** Ikasleek argi daukate unitate berri bat hasten denenan: helburu , garatu nahi diren konpetentziak, egingo diren jarduera ezberdinak, zelan ebaluatuko diegun. | | | | |
| **6.** Proposatzen ditudan ariketek testuinguru hurbil baten egoerak azalarazten dituzte. | | | | |
| **7.** Ikasleen ezaugarrien arabera, ekoizpen ezberdinak proposatzen ditut. | | | | |
| **8.** Metodologi ezberdinak proposatzen ditut. | | | | |

**9.** Nola antolatzen dut ikasle-taldea lan egiteko? (Adierazi, mesedez, ehunekotan.)

| | |
|---|---|
| *Indibidualki* | % |
| *Binaka* | % |
| *Taldeka: bi baino gehiago* | % |
| *Talde osoa* | % |

| | Balorazioa | Oharrak |
|---|---|---|
| **10.** Matematika irakasteko askotariko baliabideak eta materialak erabiltzen ditut: maneiatzeko materiala, ikusizkoa, grafikoa, paper formatukoa… | | |
| **11.** Gurasoei, etxean, buruzko kalkulua eta problemak ebazten laguntzeko jarraibideak ematen dizkiet ikasleekin lantzeko, beti ere gelan egin den lanaren arabera. | | |

Eta, esan bezala, ikastetxe bakoitzak galdera komunak eta berarentzako propioak aukeratu behar zituen.[7]

Beti aukeratzen. Hala ere ziur geunden oraingoa azken orrazketa, orrazketa definitiboa, izango zela … ala ez?

Hona hemen bururatu zitzaizkigun adibide batzuk[8]:

- **Aniztasuna**
  - Ikasleen ezaugarrien arabera, ekoizpen ezberdinak eskatzen dizkiet.
  - Azalpen orokorrak ematen ditut gehien bat.
  - Ikasgaietan eta azterketetan ariketa errazagoak eta zailagoak lantzen dira.
  - Gelaren antolaketan, taldekatzea e.a. aniztasuna kontuan hartzen al dugu?
  - Non artatu behar dira "maila" ematen ez duten ikasleak?
    - Gelan bertan talde txikiagoak eginez.
    - Gelatik kanpo adituren batekin.
    - Erritmo ezberdinak aplikatuz.
- **Programazioa**
  - Maila berean klasea ematen dugun irakasleok geure programazioetan eduki banaketa koherentea daukagu.
  - Programazioa ikasturtean zehar kontsultatzen dut.
  - Programazioan konpetentziak neurtzeko erabiltzen ditudan ebaluazio tresnak argiak dira.
  - Programatzerakoan testuinguruak ematen didan aukera kontutan hartzen dut
  - Ikasleei ematen diet programazioen berri: helburuak, ebaluazio irizpideak, metodologia...
- **Gelako jarduerak**
  - Ikasketa autonomoa laguntzeko jarduerak proposatzen ditut (informazio osagarria bilatzea, lanak, ikerketak
  - Programatzen ditudan  ekintzek edo jarduerek ezaugarri hauek dituzte: Anitzak- Zabalak-Ibilbide luzekoak-Pentsaraztekoak
  - Nire klaseetan ikaslea da protagonista
  - Proposatutako ekintza bakoitzak bere helburua oso ondo definituta dauka, zertarakoa.
  - Gelan emandako denboraren antolaketa: zenbat denbora ikasleek, zenbat denbora irakasleak
  - Ariketa sortzaile komunikatiboak (informazioa jaso, interpretatu, erabaki, sortu, arrazoitu, besteei adierazi…).

---

[7]V. eraskinean ikus ditzakezu ikastetxe desberdinetatik ateratako adibide batzuk.

[8]Adibide gehiago VI. eranskinean.



- Ebaluazioa

- Unitate Didaktikoak, proiektuak … hasten direnean ikasleek argi dituzte honakoak: helburu didaktikoak, garatu nahi diren konpetentziak, egingo diren jarduerak, nola ebaluatuko ditugun...
- Proba mota ezberdinak erabiltzen ditut
- Emaitzan zer hartzen dut kontuan?

  -Azken nota.

  -Egindako aurrerapena dituen aurrebaldintzak kontuan hartuz.

  -Non gelditu den nire eskuharmena zehazteko era indibidualean.
- Azterketak izaten dira kalifikatzeko froga nagusiak
- Arlo bereko beste departamentuekin bat nator ebaluazio sisteman.

Ikastetxeek 'etxeko lanak' eginda eta galdera-item esanguratsuak aukeratuta, horiek guztiak guztion galbahetik pasatu genituen, banan-banan eta kontu handiz, azken ikutuak emanez; ulergarritasunari, argitasunari eta esangarritasunari erreparatuz. Oztopo guztiak gainditu genituen: irakas-praktikarekin loturiko jarduera-esparruak identifikatu, hauek dimentsiotan sailkatu, dimentsioen adierazle esanguratsuenak atera, eta galdera-itemak idatzi genituen. Prest geunden hurrengo erronkarako!

Hona hemen ikastetxe guztietan erabiltzeko adostu genituen item komunak. Ikastetxe batzuetan, hauez gain, beste batzuk aukeratu zituzten, beharrezkoak iritzi zitzaizkielako gogoeta kolektiboan.

"Hasieran pentsatzen genuena baino askoz konplexuagoa eta korapilatsuagoa izan da. Zenbat buelta koordinazio batzarretatik batzorde pedagogikora, pedagogi batzordetik zikloetara, zikloetatik zuzendaritza edo batzorde pedagogikora berriro. Buelta eta buelta. Paper batetan idatzita ikusten duzunean erraza ematen du, baina norbera egiten hasten denean mila nabardura eta mila ezustekorekin topo egiten duzu."

| | Aniztasuna | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| **1** | Zer egiten dut gelaren osaera ezagutzeko? | | | | |
| | - Ikasturte hasieran proba bat pasatu | | | | |
| | - Aurreko txostenak irakurri | | | | |
| | - 1. Ebaluazioaren emaitzak ikusi | | | | |
| | - Ikasketa Buruak ematen dit | | | | |
| | - Talde bileretan ematen didate | | | | |
| **2** | Gelaren antolaketan, taldekatzean e.a aniztasuna kontuan hartzen dut. | | | | |
| **3** | Nire programazioak aniztasuna hartzen du kontuan. | | | | |
| **4** | Ikasle bakoitzari behar duen azalpena ematen diot. | | | | |
| | - Talde handian | | | | |
| | - Talde txikian | | | | |
| | - Banan-banan | | | | |
| **5** | Ikasgaietan eta azterketetan maila desberdineko ariketak planteatzen ditut. | | | | |
| **6** | Ikasketen emaitzen batezbestekotik aldentzen diren ikasleak (behetik eta goitik) hartzen ditut kontuan. | | | | |

| | Programazioa | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| **1** | Maila edota arlo bereko kideen artean, programazioak modu koherentean eratuta eta banatuta daude. | | | | |
| **2** | Programazioa ikasturtean zehar kontsultatzen dut eta, behar izanez gero, aldaketak egin eta idazten ditut. | | | | |
| **3** | Nire programazioan, oinarrizkoak eta ezinbestekoak diren konpetentziak modu zehatzean idatzita agertzen ditut. | | | | |
| **4** | Programazioa egiterakoan, testuinguruak ematen didan aukera kontuan hartzen dut. | | | | |
| **5** | Ikasleei lan berri baten hasieran, beharrezko informazioa (landuko duguna, zertarako, egingo dugun ibilbidea, jarduerak, garatuko diren konpetentziak, … ) azaltzen diet. | | | | |

| | Gelako jarduerak | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **Nire klaseko ikasleek honela lan egiten dute:** | | | | |
| | - Banaka | | | | |
| | - Binaka | | | | |
| | - Talde txikitan | | | | |
| | - Talde handitan | | | | |
| **2** | **Proposatzen ditudan ariketak honelakoak dira:** | | | | |
| | - Itxiak, bideratuak, liburukoak, … | | | | |
| | - Zabalak, prozedurazkoak, anitzak, proiektuak … | | | | |
| | - Lan kooperatiboa errazten dute. | | | | |
| **3** | **Erabiltzen dudan metodologian:** | | | | |
| | - IKT tresnak erabiltzen ditut | | | | |
| | - Ikasketa autonomoa laguntzeko jarduerak proposatzen ditut | | | | |
| | - Nire azalpen teorikoa eta liburua dira nire oinarriak. | | | | |
| **4** | **Zertan ematen dut ikastordua (bataz beste)** | | | | |
| | - Isiltasuna lortzen | | | | |
| | - Azaltzen, batez ere teoria. | | | | |
| | - Ikasleen erantzunak,parte-hartzea, praktika, ... bideratzen | | | | |
| | - Behaketan | | | | |
| | - Norbanako zuzenketan | | | | |



| | Ebaluazioa | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Unitate, gai edota proiektu bat lantzen hasi aurretik, ikasleei, zer, noizero eta zertan oinarrituta ebaluatuko dudan azaltzen diet. | | | | |
| 2 | Proba mota desberdinak erabiltzen ditut: | | | | |
| | - Azterketa idatziak | | | | |
| | - Ahozko azterketak | | | | |
| | - Norbanako lana | | | | |
| | - Talde-lana | | | | |
| 3 | Ikas prozesuan erabili ditudan baliabideak eta jardueren egokitasuna ebaluatzen ditut ikas – unitate / proiektua amaitu ondoren | | | | |
| | - Ez | | | | |
| | - Bakarka | | | | |
| | - Taldeka (mintegi, ziklo … ) | | | | |
| | - Ikasleekin | | | | |
| 4 | Ebaluazio bitartean, ikasleen emaitzen arabera, berreskuratze plana(k) programatzen d(it)ut. | | | | |
| 5 | Ebaluazioan konpetentziak hartzen ditut kontuan. | | | | |

# 5. Galdesorta ezartzea

Galdesorta idatzita genuen. Baina, nola aurkeztu ikastetxeetan? Batzorde pedagogikoan, zikloetan, klaustroan?

Eta galdesorta aurkeztu ondoren, nola bete? Zein tresna edo estrategia erabili datuak edo erantzunak kudeatzeko? Berriz ere galdera artean. Baina, joan gaitezen banan-banan.

Bagenekien 30 irakasleko ikastetxe batean, adibidez, bostehun erantzunetik gora egon zitezkeela eta hori guztia kudeatzeko baliabide informatikoak ezinbestekoak zirela. Hortaz, gure sareko institutu batean frogatutako Google-Docs aplikazio informatikoa ezagutzea eta erabiltzen hastea erabaki genuen.

“Ez da batere zaila erabiltzerakoan eta gainera aukera pila bat ematen du erantzunen kudeaketarako: sailkapenak egiteko, grafikoak ateratzeko, taldeetan multzokatzeko, eta abar.“

Horrelako hitzekin zuzendariak erraz konbentzitu gintuen eta beste inork ez zuenez aukera hoberik, pozik gelditu ginen. Esan beharra dago batzar honetara ikastetxeetako IKT arduradunak etorri zirela eta kasu gehienetan euren gain hartu zutela galdesortaren kudeaketa informatikoa.

Atal informatikoa konponduta, beste zalantza bat: Nola beteko zen galdetegia? Banaka, zikloka, mintegika …? Formatu guztiek dituzte abantailak eta desabantailak. Luze eztabaidatuta, banakakoaren alde egin genuen, erantzunak bakoitzak bereak eman behar zituelakoan, nahiz eta horren ondoren, eztabaidak taldean garatu. Hartara, ikuspegi zehatzagoa eta askeagoa batetik, eta bestetik osteko eztabaidetan aberastasun handiagoa lortuko genuelakoan geunden.

Alderdi hau argitu ondoren, beste xehetasun batzuk ere lotu genituen: Zenbat egun erabili galdesorta betetzeko? Zein ordutan? Nola sailkatu erantzunak? Mailaka, mintegika, zikloka …? Guztiek bete behar dute, zuzendaritzak barne?...

Xehetasun hauek ikastetxe bakoitzaren esku utzi ziren, bakoitzak bere egoera zein den badakielako eta antolatzeko modurik egokienak ezagutzen dituelako. Hori bai, beti ere galdesortari etekin handiena ateratzeko moduko egitura ziurtatuz.

“Inkesta moduan, pertsonalki erantzuteko galdetegia prestatu zen. Horretarako, IKT arduradunen laguntza, ezinbestekoa, izan genuen. Zintzotasunez erantzuteko eskatzen zen, errealitatea, gutxienez errealitatearen pertzepzioa, islatzeko asmoz. Irakasleriari aurkezterakoan errealismoz jokatzea erabaki genuen: asmoa ez zen eta ez luke izan beharko, dena iraultzea; izan ere, gure eguneroko lanean praktika onak ugari baitira; baizik eta, aldaketa txikiak egitea; beti ere, ikasle bakoitzak eta ikasle guztiek ahalik eta eskola arrakastarik handiena lor dezaten”.

Guk klaustroan aurkeztu dugu galdesorta. Eta denok batera errepasatu ditugu galdera-item guztiak, banan banan. Ilun edo zalantzati zegoena taldean argitu dugu, adibideak ipiniz, eta klaustro berean azaldu dugu, baita, betetzeko erabiliko dugun prozedura. Gure kasuan hiru egun erabiliko ditugu galdesorta betetzeko. Irakasle bakoitzak bakarka beteko du baina ziklo batekin edota espezialista taldearekin identifikatuko da, horrela emaitzak sailkatzeko eta kudeatzeko errazagoa izango delako. Gero, datu guztiak batzen ditugunean, eztabaida taldeak sortuko ditugu. Hori bai, baldintza bat bakarrik ipini dugu galdesorta erantzuterakoan, zintzotasunez erantzutea, beldurrik gabe, anonimoa delako eta gugandik aparte beste inork erabiliko ez duelako.”



# 6. Erantzunak kudeatzea eta interpretatzea

Ikastetxeetan galdesortak bete eta Google-Docs-en bitartez datuok itxuratu ondoren, hausnarketa eta eztabaida egiteko prestatu ginen.

Bagenekien, datuak esanguratsuak izan zein ez, interpretatu egin behar genituela. Emaitzen azterketa egiteko garaian, ikastetxeei erantzuteko orduan exijitutako zintzotasun maila berberari eutsi nahi izan genion. Eta horretarako, eta batez ere, guztion eztabaida agertarazteko eta atal garrantzitsuenetan kokatzeko, txantiloi bat sortu genuen. Beheko hau hau:

Datuak interpretatzeko txantiloia

| **Eztabaida maila** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Bakarka | Paraleloa | Zikloa | Mintegia | Etapa |
| | | | | |

| **Kontuan hartzeko alderdiak** | | |
|---|---|---|
| Ez ustekoak | Indarrak | Ahuleziak |
| | | |

| **Ondorioak** | |
|---|---|
| Ondo egindakoak | Hobetzekoak |
| | |

Ikastetxe bakoitzak bere egitura eta antolaketaren arabera moldatu zituen eztabaida guneak, zikloka eta departamentuka gehienetan, baina beti ere horien azken emaitza klaustroko eztabaida orokorra egiteko eran[9].

[9] Ikus txantiloia II.

Galdesortako emaitzen errepaso orokorrarekin batera hobekuntza lerroak planteatu ziren ikastetxeetan, bakoitzaren emaitzen hausnarketaren arabera.

Hona hemen ikastetxeetako adibide batzuk. Ikusiko denez zenbait alderdi zutabe bietan ager daitezke: ikastetxe batzuetan indargunea dena, beste batean, berriz, hobetu beharrekoa izan daitekeelako[10].

| **Aniztasuna** | |
|---|---|
| Indar guneak edo ondo egindakoak | Ahuleziak edo hobetu beharrekoak |
| Ikasleen erritmoak errespetatzen dira.<br>Ikastetxeak ba dauzka ondo antolatuta koordinaziorako egiturak ikasleen inguruan informazioa trukatu ahal izateko. | Ikasleen erritmoak errespetatzen dira.<br>Ikastetxeak ba dauzka ondo antolatuta koordinaziorako egiturak ikasleen inguruan informazioa trukatu ahal izateko. Aniztasunaren trataeraren prozedura idatzi behar da eta irakasleei jakinarazi.<br>Binaka ikasten, irakurtzen, ikaskuntza kooperatiboa bezalako estrategiak bultzatu.<br>Kontuan hartu aparteko gaitasunak edota emaitzen batez bestekotik gora dauden ikasleak. |
| **Programazioa** | |
| Indarguneak edo ondo egindakoak | Ahuleziak edo hobetu beharrekoak |
| Proposatzen diren lan erak eta metodologiak oso anitzak agertzen dira, IKTen erabilpena barne.<br>Lana egiteko modu ezberdinak erabiltzen dira: banaka, taldeka... | Taldeka lan gehiago egin<br>IKT tresnen erabilera eta ahozkotasunaren lanketa indartuz.<br>Proposatzen ditugun ariketak: zabalak, prozedurazkoak, anitzak, proiektuak, etb. izatea komeni da. |
| **Gelako jarduerak** | |
| Indarguneak edo ondo egindakoak | Ahuleziak edo hobetu beharrekoak |
| Proposatzen diren lan erak eta metodologiak oso anitzak agertzen dira, IKTen erabilpena barne.<br>Lana egiteko modu ezberdinak erabiltzen dira: banaka, taldeka... | Taldeka lan gehiago egin<br>IKT tresnen erabilera eta ahozkotasunaren lanketa indartuz.<br>Proposatzen ditugun ariketak: zabalak, prozedurazkoak, anitzak, proiektuak … izatea komeni da. |
| **Ebaluazioa** | |
| Indar guneak edo ondo egindakoak | Ahuleziak edo hobetu beharrekoak |
| Ikaslearen jardun orokorra kontuan hartzen da.<br>Beste irakasle batzuekin batera ebaluatzen da. Ez da bakarrik ikaslea ebaluatzen baita irakaslearen lana ere.<br>Proba mota ezberdinak erabiltzen dira. | Berreskuratze planak programatu behar dira.<br>Ziklo-maila amaierako promozio irizpideak gaitasunei begira adostuta egon behar dira.<br>Mintegi mailan baliabideak eta jardueren egokitasuna ebaluatu. |

[10] Azalpen gehiago VII. eranskinean.

Honekin, jada amaitutzat eman genezakeen abentura pedagogiko honen bigarren atal nagusia: galdesortaren aplikazioa, emaitzen eztabaida partekatua eta azkenik indar eta ahulezia guneen zehaztapena.

## 7. Hobekuntza esparruak proposatzea

Ikastetxe bakoitzak bere ahulguneak eta hobekuntza esparruak mahai gainean ipini ondoren, hobekuntza proposamen konkretuak bideratzeko ordua zen. Hartara, hobekuntza lerro guztien artean hautatzeko txantiloia erabili genuen zikloz ziklo edota mintegiz mintegi .

Orduan, azken pauso modura, Ikastetxeek nork bere hobekuntza ildoak idatzi behar zituzten: ekintzak eta jarduerak zehaztu, denboran kokatu, arduradunak izendatu, baliabideak aukeratu, lorpen adierazleak identifikatu eta KITTO, lana egina hurrengo bizpahiru urterako!

"Eta nola lotu ditzakegu Autoebaluazioko Galdesorta honetan izan ditugun emaitzak Ebaluazio Diagnostikoan izandako emaitzekin? "

## 8. Autoebaluaziorako galdesorta eta Ebaluazio Diagnostikoa bat egitea

Nola uztartu eta lotu proba desberdin bi hauetako emaitzak? Irakasleon irakas-praktikaren autoebaluazioa (Autoebaluaziorako galde-sorta) eta ikasleen konpetentzien ebaluazioa (Ebaluazio Diagnostikoa)? Ikasle eta irakasle, ikas eta irakas prozesuak. Non elkartu? Nola bateratu?

Argi zegoen azken finean ikastetxean garatutako egitasmo, proiektu eta hobekuntza plan guztiek lan esparru bakar batean bat egin behar dute: ***ikasleen gaitasunen hobekuntzan.***

Bai, ikasleen gaitasunen hobekuntzan elkartu behar dira Ebaluazio Diagnostikoak bultzatutako Hobekuntza Planak eta orain, Irakas Praktikaren Autoebaluaziorako galdetegiak bultzatuta egiteko prest geundenak. Biak bat egin, eta bietan ipini azaleratutako ahulguneak hobetzeko esparruak eta lan plangintzak.

"Batzorde Pedagogikoan bildu behar izan ginen. Oso bilera luzea izango zela ematen zuen Ebaluazio Diagnostikotik ateratako hobekuntza plana eta irakaslearen auto ebaluaziorako galdetegipean lorturikoarekin bat egiteak. Baina lortu genuen! Azkenean Hobekuntza Plan bakarra eratu genuen. Hura poza!

Hobekuntzarako plan bat baino gehiago izatea ez genuen komenigarri ikusten. Hori dela eta irakasle guztien artean eztabaidatzea iruditu zitzaigun aproposena. Klaustroan talde txiki eta heterogeneoetan banaturik plan biak hartuta bateratzeko proposamenak egin genituen. Talde txikietan esandakoa bateratu, baloratu eta SARIA!: hobekuntza plan bakarra elkarrekin adostua."

Hala, bi urtean zehar egindako lanak zentzua hartzen zuen: ikastetxeko baliabide guztiak, irakasleok barne, ikasleen zerbitzura zeudela adierazten zuen. Eta gu geu, horrela heldu ginen Autoebaluazio Galde-sortaren azken xedera; ikasleen gaitasun guztiak hobetzeko tresna lagungarria lortzea.

Ikastetxeek beren emaitzen eta aukeren arabera hobekuntza plan propioa diseinatu zuten. Bakoitzak berea. Baina guztiek oinarri berberak zeuzkaten. Gero, gerokoak etorri ziren, hangoak eta hemengoak...

## 9. Etorkizunerako erronkak zehaztea: aurrera begira, zer?

Baina oso inozoak izan ginen hobekuntza esparruak zehaztutakoan gure egitekoa bukatuta zegoela pentsatu genuenean. Gezurra badirudi ere, lan bat bukatu orduko, prozesu osoan bezala, beste erronka baten aurrean egon ginen.

“Primeran! Hobekuntza plana eginda dugu baina... orain planifikazio orokorra zehaztu beharko genuke hau guztia aurrera eramateko. Eta gelako dinamikan hobetu bai baina zelan? Eta teknologia berriak nola txertatuko ditugu? Hau zoramena! nik bakarrik hau guztia bideratu behar? Eta sarean egitea proposatzen badugu?”

Hobetzeko esparruak definitu ondoren, nondik hasi, zeren arabera, nola, zein irizpiderekin ... adosteko beharra ere argi gelditu zen. Eta nola ez! Gure esperientzian oinarrituta, denak batera bide hau egitea askoz errazagoa izango zelakoan geunden.

Ikastetxeetan proposatutako hobekuntza planetan oinarrizko alderdiak jorratu behar zirela antzeman genuen: programazioak, gelako jarduerak, ebaluazio irizpideak eta akordioak, tutorizazio prozesuak ...

Hori dela-eta azken urte honetan horren inguruan aritu gara: praktika onek izan behar dituzten ezaugarriak identifikatzen. Horretarako, askotariko dokumentuak eta praktikak aztertu eta baloratu ditugu.

Zer kontatuko dizuegu? Amaigabeko berrikuntza prozesu batean sartuta gaudela ohartu gara eta horretan jarraitzeko asmoa, gogoa eta indarra badugu.



# Parte hartu duten irakasleen iritziak

Atal honetan ekimenean parte hartu zuten ikastetxeetan jasotako zenbait aipamen eta ondorio biltzen dira.





## Zelan bizi izan da esperientzia ikastetxean?

“Lehenengo eta behin esan behar dugu orokorrean eta honelako praktiketan ohitura handirik ez izan arren, ondo bizi izan dela, apaltasunez, eta autokritikaz saiatu garela gauzatzen. Bidea ez da leun leuna izan eta zenbait momentuetan beldurrak azaldu dira eta astiroago joan behar izan dugu, edo formazio saioak behar izan ditugu lan honetan konfiantza geureganatzeko.”

“Ikastetxe guztiak ez garela berdinak esateko beharrik ez dago, hori dela eta bakoitzean eta egoeraren arabera erritmo desberdinak eraman egin ditugu eta gelako jarduеretan zentraturik enfoke anitzak egon dira.”

“Aipatzekoa da parte hartzaileen ( Klaustroak, mintegiak, zikloak, etapak … ) inplikazio maila eta egindako lana nahiz eta irakasle batzuengan eragin zuzena izan eta beste batzuengan ez hainbeste baina hau ere normaltasunaren barruan sartu behar da..”

Eskolako irakasle gehienek ondo-ondo hartu zuten irakas jardueren inguruko planteamendua eta hausnarketa egin beharraren premia.”

“Irakas - praktika honen auto ebaluaziotik ateratako informazioarekin gehi beste iturri desberdinetatik lorturikoarekin (aurreko ebaluazio diagnostikoa, inkestak…). Ikasturteko Urteko Planaren ildo nagusiak adostu eta gauzatzeko aukera izan dugu.”

“Prozesuan eztabaida guneak sortzea ezinbestekoa izan da eta horrek sendotasuna eta bateratasuna eman dio ikastetxeko jardunari. Eta egindako lan hau hobekuntzarako, praktika onak sustatzeko, programazioak konpetentzietara egokitzeko eta gelako estrategien gaurkotzeko aukera bezala hartu da irakasle askoren artean”.

“Beste kasu batzuetan aurreko etapako ikastetxeekin harremanak estutzeko balio izan du eta elkarrekin proiektu berri bat egiteko oinarriak jarri dira.”

“Lana orokorrean ondo baloratua izan da bi arrazoiengatik: lehenengoa, LOEk exijitzen zigun enfoke berriari erantzuna emateko, gure praktikaren inguruko hausnarketatxo bat egin beharra zegoen eta bigarrena, noiz edo noiz geldiuneren bat egitea oso osasuntsua da erabiltzen ditugun metodoak aztertzeko, egokitzeko, une unetan eskolak eskatzen duen irakaslearen perfila nolakoa den ikusteko eta, era berean, ikasleak gizarteratzeko behar dituen estrategiak, formazio eta abar, emateko moduan gauden.”

“Egindako lana hobekuntzarako aukera bezala hartu da, ikasleen emaitzen hobekuntzarako, hain zuzen konpetentzien ikuspuntutik.”

## Prozesuan antzemandako indarrak

“ Denbora eman behar da irakasleak elkarrekin ideiak partekatzeko, azalpenak eskatzeko, zalantzak argitzeko, eta abar. Honetarako espazioa zabaldu non gure beldurrak, gabeziak … agerian geratzen diren. Gure profil-profesionala, gure eguneroko praktikak zalantzan jartzen laguntzen digu eta eztabaida pedagogiko - didaktikoak egitera bultzatzen gaitu Horretarako zuzendaritzaren lidergoa, dinamizazioa eta abar ezinbestekoa da”.

“Honelako lan bat aurrera eramateko, aipatzeko da klaustrokideen arteko koordinazioa eta jarrera baikorra, irakasleek egindako lana, baita, guraso eta senideekin egiten den elkarlana. Proiektu hauek bultzatzeko nahia eta gaitasuna duen lantaldea.”

“Guztion artean konpartitutako ebaluazioak eta hauen hausnarketak (irakas – jardueraren auto ebaluazioa + ebaluazio diagnostikoa) ikuspegi bertsutik jarduteko aukera ematen du eta aurrera begira, denok batera joateko eta denon artean elkar ikasteko.”

“Zehazki behar ditugun hobekuntzak zentratzen laguntzen digu (Diagnosi frogako hobekuntza plangintzarako esperientzi honen ondorioz egindako gogoetak baliagarriak izan dira).”

“Prozesua ez da laburra izan eta zenbait momentutan aurrera jarraitzeko denon artean eta era adostuan erabakiak hartu behar izan ditugu eta hau nahiz eta momentuan erreza ez izan oso baliagarria baloratzen da gerora begira.”

## Prozesuan antzemandako ahuleziak

“Indarrak egon badira ere, ahuleziak ere topatu ditugu bidean eta ikastetxeetan aipatzen direnak hauek dira batez ere:
-Formazio eta esperientzia falta. Honen ondorioz, egiten duguna aldatzeak sortzen duen kezka, segurtasun gabezia …



-Denbora falta denon artean gehiago sakontzeko eta elkar gogoeta eta eztabaidak egiteko.

-Irakasle konkretu batzuen partaidetza ezinbestekoa da eta momentu batzuetan horren falta nabaria izan da.

-Dinamizatzailearen figura sortzea ezinbestekoa ikusten dugu proiektua aurrera eramateko (ikastetxetik kanpokoa, Berritzegune, ikuskaritzakoa edo…).”

## Ondorioak eta hurrengo erronkak

“Prozesu honen zehar gure indarrak eta hobetzeko beharrak detektatzen joan gara eta ikastetxe guztietan berdinak ematen ez direla kontuan harturik, bakoitzak bere bidea definitu beharko du baina gerora begira aipatzen diren erronkak, beharrak hauexek dir:

-Ikastetxeko hobekuntzak adosteko, behar diren gogoetak egiteko (noiz eta noizero, saioen lan- metodologia, eztabaidaren mamia eta lan-tresnak prestatu )antolatzeko beharra eta adostutako aldaketen edota ekintzen jarraipena, nola egin.

- Bat egin Ebaluazio Diagnostikoan irtendako emaitzak eta Irakasleen Autoebaluazioan irtendakoak, biak oinarri hartuz Hobekuntza Planerako, beti ere Ikasleen Gaitasunak garatzeko asmoz.

- Bi ebaluazioek, gurea, barnekoa, eta bai kanpokoa, ED-a... biek ala biek agerian uzten zuten ikasleek konpetentzietan lortzeko ezinbestekoa zela aldaketa metodologikoa gure eguneroko praktikan”.

- Nola gauzatu aldaketa metodologikoa gure eguneroko praktikan.

- Praktika onen zabalpenean jarraitzea eta konpetentzietan sakontzea.

- Apurka apurka gelako jarduerak planteatzerakoan ikasleekin metodologia aktiboagoak erabiltzearen beharra.

- Formazioa eta esperimentazioa ezinbestekoak ikusten dira; beti ere, egiten dugunetik abiatuz, ikaslea protagonistagoa bilakatzeko moduak sustatuz.

- Programazio bateratuak egitea eta zikloa gainditzeko lortu behar diren helburuak zehaztea.”

“Egia esanez detektatutako ahuleziei nabarmenki egin behar diegu kasu baina ditugun indarrak deskuidatu barik, hauek ere mantentzen edo gehiago indartzen jarraitzen saiatu behar dugu.

Eta ezin dugu ahaztu erronka berri hauei aurre egiteko, irakasleok formazioa behar dugula.”

## Beste batzuk

“Tresna hori sortzea inportantea bazen, askoz inportanteagoa izan zen bera sortzeko aitzakiaz zabaltzen hasi zen eguneroko irakas-praktikari buruzko hausnarketa kolektiboa, eta beraren bitartez, identifikatu eta garatuko diren hobekuntza esparruak etorkizunari begira. Hausnarketa horiek oinarritzat hartu ondorengo ikasturteetako formazio plangintzak osatzen eta garatzeko aukera paregabea da.“

“Holako esperientziekin lanean aurrera jarraitzea sarea erabiliz.”

# Parte-hartu duten ikastetxeak



## CEIP Lekeitio HLHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | HH - LH |
| Irakasleak: | 53 |
| Ikasleak: | 570 |
| Sareak/ Metodologia: | Ikas Komunitateak<br>Kalitatea Hezkuntzan |

Larrotegi z/g. Lekeitio 48280 Tlfnoa:94.684.18.09
014925aa@hezkuntza.net , info@lekeitioeskola.com www.lekeitioeskola.com

## CEIP Txomin Aresti HLHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | HH - LH |
| Irakasleak: | 41 |
| Ikasleak: | 443 |
| Sareak/ Metodologia: | Kalitatea Hezkuntzan |

Iparragirre Avda 76. Leioa 48940 Tlfonoa: 94.463.89.38
014336aa@hezkuntza.net , www.txominaresti.net

## CEIP Zaldupe HLHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | HH - LH |
| Irakasleak: | 38 |
| Ikasleak: | 410 |
| Sareak/ Metodologia: | Ikas Komunitateak<br>Kalitatea Hezkuntzan |

Zaldubide 15. Ondarru 48700 Tlfnoa: 94.683.20.04
014378aa@hezkuntza.net , www.zaldupe.com zaldupeoep@gmail.com

## IES Arrigorriaga BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH - BATX |
| Irakasleak: | 71 |
| Ikasleak: | 586 |
| Sareak/ Metodologia: | Kalitatea Hezkuntzan |

Arrigorriaga-La Peña z/g . 48480 Tlfnoa: 94.671.41.91
015072aa@hezkuntza.net, www.arrigorriagainstitutua.net

## IES Beasain BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH - BATX |
| Irakasleak: | ZIG |
| Ikasleak: | 108 |
| Sareak/ Metodologia: | 912 |

Ugartemendi 6, Beasain 20200 Tlfnoa : 943.88.07.53
013461aa@hezkuntza.net , zuzendaria@beasainip.net , www.beasainbhi.net

## IES Elorrio BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH |
| Irakasleak: | 27 |
| Ikasleak: | 191 |
| Sareak/ Metodologia: | Kalitatea Hezkuntzan |

San Roke 12, 2. Solairua, Elorrio 48230 Tlfnoa: 94.658.27.13
013065aa@hezkuntza.net , www.elorrioinstitutua.org

## IES Lekeitio BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH - BATX.<br>ERDI MAILAKO ZIKLOAK.<br>ZIG. |
| Irakasleak: | 46 |
| Ikasleak: | 300 |
| Sareak/ Metodologia: | Kalitatea Hezkuntzan |

Larrotegi 5, Lekeitio 48280   Tlfnoa: 94.684.13.11
015624aa@hezkntza.net , www.lekeitiobhi.net

## IES Lizardi BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH - BATX. |
| Irakasleak: | ZIG |
| Ikasleak: | 82 |
| Sareak/ Metodologia: | 700 |

Araba kalea 18, Zarautz 20800   Tlfnoa: 943.834.35
012292aa@hezkuntza.net , zuzendaria@lizardibhi.net , www.lizardibhi.net

## IES Mogel Isasi BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH |
| Irakasleak: | 30 |
| Ikasleak: | 190 |
| Sareak/ Metodologia: | Kalitatea Hezkuntzan |

Isasi 37, Eibar 20600   Tlfnoa: 943.203.094
012948aa@hezkuntza.net

## IES J. Orobiogoitia BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH - ZIG |
| Irakasleak: | 39 |
| Ikasleak: | 270 |
| Sareak/ Metodologia: | Kalitatea Hezkuntzan |

Olaburu 3, Iurreta 48215 Tlfnoa: 94.681.04.61
015090aa@hezkuntza.net , zuzendaria@orobiogoitia.net
www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net

## IES Zuazola Larraña BHI



| | |
|---|---|
| Mota: | Publikoa |
| Etapak: | DBH - ZIG<br>BATX - LAN HEZ.<br>EZ ARAUTUA |
| Irakasleak: | 48 |
| Ikasleak: | 539 |
| Sareak/ Metodologia: | Kalitatea Hezkuntzan<br>Goieskola |

San Lorentzo, z/g, Oñati 20560 Tlfnoa: 943.782.150
013015aa@hezkuntza.net , zuazolaonati@terra.es
zuzendari@onati.net , www.onati.net

# Ikastetxeetan garatzen dituzten proiektu batzuk



## Ikastetxeek garatzen diztuzten proiektu batzuk

**AGENDA 21**
Ingurunearen garrantzia eza-gutzeko eta hura zaintzeko jarduerak.

**KUTURARTEKOTASUNA**
Kulturen arteko elkarbizitza ikastetxean bultzatzeko proiektua.

**LIBURUTEGIA**
Eskola liburutegiaren erabilera bultzatzeko proiektua.

**INEBI - BINEBI**
Eduki Kurrikularrak ingelesez irakasteko esperimentazioa .

**HIZKUNTZA NORMALKUNTZA**
Euskararen erabilera normalizatua bultzatzeko.

**BIKOTEKA IRAKURTZEN ETA IDAZTEN**
Berdinen arteko elkarreragina dela medio irakurketa eta idazketa bultzatzen duen proiektua.

**ZIENTZIA HEZKUNTZA**
Derigorrezko Hezkuntzan gaitasun zientzifikoa garatzeko ekimena.

**HMH**
Hezkuntza hirueledunaren esperimentazioa (atzerriko hizkuntzan, euskeraz eta gaztelaniaz).

**HEZKIDETZA**
Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna garatzeko jarduerak bultzatzen dituen proiektua.

**PROA**
Ikasketetan laguntza programa, orduz kanpo.

**INGELESA GOIZTIARRAREN SARRERA**
Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzaren esperimentazioa Haur Hezkuntzan.

**VISITING TEACHERS**
Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzen jatorrizko.

**ETWINNING**
Europako ikastetxeen arteko kolaborazio proiektuak

**ELKARBIZITZA**
Gatazkak konpontzeko eta elkarbizitza errazteko proiektuak.

**IKT IKASTETXE EREDUA**
Ikastetxeen heldutasun teknologikoa ebaluatzeko proiektua.

**PAP EUROPAR PROIEKTUAK**
Europa Batasuneko hezkuntza sistemen arteko elkarlana bultzatzen duen programa.

# Eranskinak

Eranskin hauetan daude saioetan landu ditugun dokumentuak eta ikastetxeek, esperientziaren fase bakoitzean, eman zituzten ekarpen bilketak. Hitzez hitz eta kronologikoki bildu nahi izan ditugu eraikitzearen eta lankidetzaren ezaugarriak azpimarratzeko.

# I. eranskina: lehenengo momentuan gogoeta bultzatzeko erabilitako irakurgaiak

## LA PROFESIONALIZACIÓN DEL DOCENTE. Miguel Fdez. Pérez

“…Tal vez quedaríamos sorprendidos, y estimulados a mejorar dramáticamente nuestra práctica docente, contemplando el perfil didactográfico (didactograma) de nuestras propias clases, o el de varios colegas de nuestra misma asignatura o de nuestro centro, a través de la red selectiva de un sistema de analizadores que “pescara” específicamente el recorrido mental provocado por nuestras clases en nuestros alumnos. La investigación es muy sencilla: basta un magnetófono, papel, lápiz y la voluntad de dedicar a ello un poco de tiempo (individualmente, en grupo, con colegas, con algún experto asesor, según se prefiera). Imagínese el lector el aldabonazo profesional que puede significar para cualquier docente normal (moralmente sano), el constatar, por ejemplo, como se constató en algunos casos, que el perfil didactográfico promedio de varias docenas (o centenares) de profesores se aproximaba al que puede verse eh la figura 12, tomando para el análisis de la practica escolar, desde esta perspectiva del discurso lógico (operaciones mentales), como categorías de análisis o analizadores, la secuencia jerárquica de los tipos de procesos mentales sugerida por Bloom…”

“…La potencia para el cambio educativo asumido por los profesores mismos aumenta, lógicamente, en la medida en que participan ellos en el proceso de grabación y análisis homogeneizado de los protocolos o grabaciones de las sesiones de clase. Ellos mismos son los primeros en calificar de “escándalo técnico—profesional insostenible”, ante un didactograma, por ejemplo, como el que simula la figura 12, su propia practica escolar promedio (pues se toman o bien varias sesiones de clase de un solo profesor —si es sólo uno el que desea analizar su práctica docente—, o bien numerosas sesiones de varios profesores). Suele resultar que los fondos aportados por los ciudadanos para la hominización de sus hijos, a través de la educación, se emplean por la escuela en fomentar prioritariamente los niveles menos homínidos del psiquismo humano, dejando a los alumnos no muy lejos de los niveles psíquicos de las especies animales infrahumanas, como comentaba sincera y agudamente un profesor de un grupo de renovación pedagógica.

¿Se imagina el lector la cantidad de análisis de este tipo o similar (= descripciones/evaluaciones/investigaciones) que puede hacer, de la practica escolar, cada profesor o grupo de profesores dentro de sus respectivas asignaturas?

¿Se imagina el lector el beneficio que aportaría al desarrollo cualitativo de la docencia el hecho de que los profesores tomaran nota, descriptivamente, del nivel/clase de operaciones mentales que están haciendo hacer masivamente a sus alumnos (a expensas posiblemente de la práctica ausencia de otros niveles mentales superiores, más hominizantes)y, al mismo tiempo, identificaran, proyectualmente, para introducirlos en su práctica pedagógica, las posibilidades que sus respectivas materias ofrecen para el ejercicio y fomento de procesos lógicos de más alto nivel?

¿Se imagina el lector las posibilidades criticas de mejora de la práctica escolar que este tipo de análisis podría proporcionar, si se aplica, por ejemplo, a los libros de texto, a las preguntas que se formulan en los exámenes, a las respuestas (cuando son las preguntas abiertas) que los alumnos dan al examinarse, etc.?




*Figura 12. Simulación de perfil didactográfico aproximado tomando como analizadores operaciones mentales de la taxonomía jerárquica de Bloom.*




"...En los países anglosajones, sólo algunos oficios se consideran profesiones de pleno derecho, a saber: médicos, abogados, magistrados, peritos, científicos, arquitectos, ingenieros, directores ejecutivos, investigadores, periodistas de opinión, etc. La enseñanza no forma parte de esos oficios.

El oficio de enseñante se describe a menudo como una *semiprofesión*, caracterizada por su *semiautonomía* y una *semirresponsabilidad*. Para evolucionar hacia una mayor profesionalización de su oficio, haría falta que los enseñantes asumieran riesgos y dejaran de protegerse detrás del *sistema*, de los programas y de los textos.

Entonces, a cambio de una responsabilidad mayor, dispondrían de una autonomía más amplia –o menos clandestina- para escoger sus estrategias didácticas, sus procedimientos y modalidades de evaluación, sus formas de agrupar a los alumnos y de organizar el trabajo, de instaurar acuerdos y el orden en el aula, de concebir los dispositivos de enseñanza-aprendizaje o de dirigir su propia formación.

Así, como profesionales de pleno derecho, los enseñantes tendrían que construir y actualizar las competencias necesarias para el ejercicio, personal y colectivo, tanto de la autonomía como de la responsabilidad. La profesionalización del oficio de enseñante requeriría una transformación del funcionamiento de los centros y una evolución paralela de otros oficios de la enseñanza: inspectores, directores de centro, formadores, etc.

La autonomía y la responsabilidad de un profesional no se entienden *sin una gran capacidad de reflexionar en la acción y sobre la acción*."

*(Perrenoud, 2007)*

*La autoevaluación en los centros. Algunas ideas recogidas de Joan Rué*

**En nuestra cultura docente hay dos creencias** muy importantes e **igualmente equivocas** que parecen sostener la idea de cambio. La primera es que toda mejora se deriva de algún presupuesto importante o relevante, **un criterio de autoridad** que, por su propio valor, y una vez divulgado convenientemente, acabará infusionando –por exposición, pero no se sabe cómo- la práctica de los agentes o de los profesionales. La segunda es que esta mejora se dará de acuerdo **con el mismo modelo de organización** que tenemos, se difundirá a través de prácticas individuales y a partir de las diversas materias o departamentos.

Los **procesos de mejora** de la calidad educativa no es raro que encuentren su **límite** en la medida en que se acercan al terreno de **la actuación personal de los profesionales**, pero es precisamente a partir de este límite donde hay que trabajar, con respeto y confianza, pero **avanzando a partir de todo lo que se hace realmente**. La reflexión de naturaleza autoevaluadora considera como una prioridad importante las prácticas de aula.

Las expectativas sociales respecto a la educación se modifican. Nuevos grupos sociales aspiran a obtener de la escuela nuevas competencias, las actitudes de los jóvenes ante el conocimiento escolar son diferentes a las de generaciones anteriores, conceptos como adolescencia y juventud como categorías sociales se amplían y los marcos de comprensión vigentes entre los profesores pueden no ser ya útiles para comprender a los alumnos y sus reacciones, con lo que se incrementa el riesgo de cometer importantes errores de diagnóstico y, en consecuencia, de actuaciones.
De ahí que los procesos de mejora realmente significativos sólo pueden darse en la medida que se incrementa la discusión y la negociación, la participación en la elaboración de fines y de métodos y en la medida que los propios profesionales se implican en lo que hacen a través de un proceso reflexivo y colegial. Esto es algo que los expertos del tema empiezan a tener como axiomático. Bollan argumenta que «**la escuela eficaz nunca puede hacerse realidad mediante una estrategia de mejora impuesta de arriba abajo**».

Sintetizando, diríamos que **ante los retos** que presenta la nueva situación, partimos de **dos tradiciones diferenciadas** que generan distintas formas de enfocar los cambios educativos. Un primer **enfoque**, que llamaríamos ***regulador***, confiaría en el poder de la regulación externa ejercida bien por técnicos externos, bien por el poder regulador de los administradores y políticos. El segundo **enfoque**, que denominaríamos ***deliberativo***, establece que los profesionales de la educación asumen las responsabilidades de su oficio, se comprometen con lo que hacen y que adoptan las soluciones adecuadas a cada situación.

**La educación** se halla todavía entre las últimas profesiones donde es legítimo trabajar por cuenta propia en **un espacio protegido de las miradas** de los demás.
Se comete un importante error de perspectiva en el campo de la mejora profesional docente cuando se la considera esencialmente como fruto de la voluntad y de una actuación personal o individual.

**El éxito del que enseña sólo puede definirse a partir del éxito del que aprende.**

# II. eranskina: adostutako *dimentsio / jardun esparru*en inguruko ikastetxeetako irakasleek eginiko gogoetak

## Aniztasuna

- Atzerritarrak: hizkuntzaren ezagupen eta erabilera, lagun taldea eta herrian integrazioa.

  Behar bereziak dituzten ikasleak: gure prestakuntza; koordinazioa (helduen arteko lan bateratsua); lagun taldean integrazioa.

  Ikasleen erritmo desberdinak: irakasleen erakusteko moduak egokitu; ume bakoitzeko ezagupen (diagnostiko) on bat izan.

  Famili eta beste eragile batzuen (gizarte langileak, ''partikularretako irakasleak, beste profesionalak...) arteko koordinazioa eta inplikazioa.

- Zer ulertzen dugu aniztasunaz hitz egiten dugunean?.

  Bakoitzari bere erritmoa errespetatuz bultzatzen joan behar dugula.

  Denek denetatik eta egoera ezberdinetan ikas dezaketela, eredua edonor izan daitekeela eta ez bakarrik irakaslea.

  Bakoitzaren motibazioa izan behar dela abiapuntua (adinaren ezaugarriak, ikasketa esanguratsua ahalbideratu). Jardueren diseinua egiterakoan erritmo eta interes ezberdinak daudela kontuan hartu, ez utzi jarduera guztiz bideratua eta itxita, aukerak eman garatzeko forman eta denboran.

- Konpetentzia guztetan oso argi izatea gutxiengoak eta mailakatua izan. Ariketa, ekintza... gutxiengoak kontuan izatea eta mailakatua izatea.

  Gelaren antolaketa: taldeka, binaka...

  Lan kooperatiboa.

  Beraien artean laguntzea, zuzentzea, laguntzea, adieraztea.

  Lehentasuna ematea ikasleek bizitza praktikoan behar dituzten tresnei.

  Hizkuntzatan: Idatzizkoak:egunkarien berriak, erreklamazioak, aparagailuen argibideak, argudio testuak, errezetak...) Entzumen ezberdinak bultzatzea (irratia... Eztabaidak antolatzea. Idaztera bultzatzea: curriculumak lanpostuetarako, harrera gutunak, laburpenak.... Beste kultura batetik datozenak beti kontuan izan.

- Nire ikasgaian, egon daitekeen aniztasunaz jabetzeko, hasiera-frogaren bat planteatzen dut.

  Aniztasunari erantzungo dioten ariketa desberdinak edo ariketa beraren maila desberdinak jartzen ditut.

  Ikastalde barruan azpi-ikastaldeak egiterakoan aniztasuna kontuan hartzen dut.

  Talde lana bideratzerakoan, aipatu taldeetan heterogeneitatea bilatzen dut.

  Ebaluazioa egiterakoan ikasleen aniztasuna kontuan hartuta jartzen da nota.

  Ikastunitateen egokitzapenak egiten ditut.

## Programazioa

- Talde batzuetan zaila da programazioa jarraitzea, talde bakoitzak dinamika propioa duelako.

  Programazioetan eduki ugari jarri ohi dugu(kontzeptuak, prozedurak, jarrerak) baina oso zaila gertatzen da ikasleak gauzatu ditzan, praktikan jar ditzan alegia.

  Hainbat gai beste mintegiekin koordinatzea baliagarria gerta daiteke, edukiak ez errepikatzeko helburuekin. Adibidez energia gaia teknologia, natura eta gizarte arlotan aztertzen da. Plastika eta teknologia marrazketa teknikoan musika eta ingelera abestien letrak direla...

  Helburu nagusia programazio errealak burutzea izan beharko genuke, terminologia eta xede arranditsuak albo batera utziz.

  Programazioa eguneroko jarduerak kontuan hartzekoa izan behar du, funtzionala.

- Nori zuzendua. Lortu beharrekoa ondo zehaztu aurretik.

  Erabili beharreko baliabideak ongi aztertu eta egokitasuna kontuan hartuz erabaki.

  Zer izango den lan horretan funtsezkoa definitu gero ebaluatu ahal izateko.

  Nola erabiliko dut gela eta beste baliabide batzuk beharrezkoak badira.

  Adostu nire paraleloekin eta aurreko eta hurrengo kurtsoetan daudenekin (zentroan antolamoldeen beharra ikustaraztea, koordinazio beharra baloratzea, …).

  Gutxiengoetatik aparte zer landuko da programazio horrekin. Baloratu ongi arlo horrekin batera zein beste aspektuak ere kontuan hartu behar dudan: autonomia garatzekoak, auto-estima, norberaren hazkuntza pertsonalekoak, sozial arloko helburuak (elkarbizitza, lan kooperatiboak…).

- Nire ikasgaiko programazioa ikastunitateka dago eraikia

  Ikastunitate bakoitzak argi zehaztuta dauzka ebaluazio-irizpideak

  Ikastunitate bakoitzari zenbat saio aurre ikusten zaizkion zehaztuta dago

  Ikasleriari guzti honen berri eman zaio

  Ikasgaia aurrera eramateko erabiliko den metodologia azaldu diet ikasleei

  Programazioa konpetentziei begira egina dago

  Maila bakoitzerako programazio bakarra dugu

  Mailen arteko programazioen arteko lotura koherentea dago

  Programazioa egiterakoan, edukiak beste ikasgai batzuekin koordinatu ditut

  Programazioaren atalen batean/batzuetan aniztasunari emango zaion erantzuna zehazten da.

- Orokorrak dira edo oso zehatzak eta gela jardueraka antolatuak?

  Diseinatzeko modua. Adostasuna.

  Ebaluatzeko moduak bateratuak arloka?

  Publikoak eta lehen egunetik ezagunak ikasleentzat eta familientzat.

  Auto-ebaluazioaren beharra.

## Gelako jarduerak

- Ikasleen antolaketa lan taldeetan: bakarka, bikote-hirukote, taldean, talde handian …

  Ikasle-irakasle (heldu, bolondres ...) arteko harremanak: irakas-ikas prozesuak

  Ekintza edo jarduera motak: liburuko ariketak, interesguneak, proiektuak, bestelako lanak...

  Senitartekoen inplikazioa gauzatu.

- Ikasleei protagonismo handiagoa ematea, Talde Elkarreragileen printzipioetan oinarrituz .

  Berdinen arteko elkarrizketa bultzatu interakzioa sortuz eta bultzatuz eta guztien partaidetza sustatuz.

  Guztien lana goraipatu eta baloratu.

  Ikasten jarraitzeko gogoa bultzatu eta indartu.

  Iguripen handiak izan eta lortu. Bakoitzak daukan informazioa eta jakintza era elkarreragilean erabiliz.

